

KUTXA IBILTARIAK

Kaixo:

Proiektu honen sortzaileak, Idoia, Ane, Lur, Euker eta June gara. Gure gizartean erosketak ohiturak urte gutxitan aldatu dira; orain dela 40 urte imajinaezina zen erabilitako arropa erostea eta saltzea. Orain dela 4 urte publiko gazte, urbano eta modernoak soilik ausartzen ziren arropa saltzera eta erostera. Gaur egun tendentzia hau asko aldatu da. Jendeak erabilitako arropak saltzeko prest azaltzen da baldin eta salmentaren prozesu oso hori enpresa batek egiten baldin badu. Gaur egungo jendea denbora gutxitan nekatu egiten da arropekin, eta berriak eta erabilitakoak erosten ditu. Bigarren eskuko arropak erostea "jasangarritasunaren" kontzeptuarekin erlazionatzen da, eta ez maila ekonomiko baxu batekin.

Aurreko arrazoi guzti honengatik "Kutxa ibiltariak" proiektua asmatu dugu. Kutxa ibiltariak bezero potentzial hauei beraien arropak saltzera dedikatuko da; andrazkoen, gizonen eta umeen bigarren eskuko arropak salduko ditugu. Gure ustean "Kutxa ibiltariak" proiektuarekin Euskadi mailan ematen ez den zerbitzu baten beharra asetuko dugu.

Gure ezaugarri aipagarrienetako bat, bezeroak erabakitzen duenean bere arropa saltzea, berak adierazten duen helbidean jasotzea eta arroparen salmentaren kudeaketa osoa egitea da, berak adierazten duen kontu korrontean dirua sartuz eta gu salmentaren komisio batekin geratuz. Ikusiko duzue gure aurreikuspenak oso positiboak dira.

